

Memoria gorde,  
oraina bizi,  
etorkizuna eraiki,  
izan Kronikalari!



## ■ HERNANI ERAKUSKETA

### Ainara Garciaren argazkiak, Biterin

Ainara Garcia Azkoitian bizi den argazkilaria da eta gaur arratsaldean hasi eta hurrengo bi asteetan bere bidaietan aterako argazkien erakusketa jarriko da Biterin. ||

## ■ HERNANI ESKIA

### Eski ikastarorako informazio bilera

Urtarrilaren 12 eta 13an iraupen eskiko eta eski alpinoko ikastaroa antolatu du Mendiriz Mendik, eta honen inguruko informazioa emateko bilera deitu du etzi urtarrilaren 10ean, 20:00etan bulegoan. Bertan azalduko dira nola eman izena, eta gainerako xehetasunak. ||

## ■ HERNANI PINTXOAK

### Ikastaroak bihar hasiko dira

Sukaldaritzako ikastaroa antolatu du Hernaniko Udalak, bihartik martxoaren 13ra bitarte. Zehazki, pintxoak egiten ikasteko kurtsua izango da, eta Transpacarren egingo dute, asteazkenetan, iluntzeko 19:00etatik 21:00etara. Izena eman behar zen. ||

## ■ HERNANI SOLASALDIAK

### 'Volver a casa' liburuaz, Biterin

Bihar literatur solasaldia, gaztelaniaz, liburutegian izango da, iluntzeko 19:30etan hasita, eta Yaa Gyasi idazlearen *Volver a casa* liburuaz ariko dira bertan. Amaia Garciak zuzenduko du saioa. ||

## ■ HERNANI KAXKO

### Estimulazio musikal tailerra

Gaur izango dute urteko aurreneko saioa Estimulazio Musikal Goiztiarra tailerreko kideek. Kaxko Elkarteak antolatzen duen tailerra da, eta asteartero egiten dute saioa, 10:45etatik 11:45etara, Biterin. Debalde da, baina izena eman behar da: [info@musikhazi.com](mailto:info@musikhazi.com) edo 608 19 37 01 telefonoz. ||

## ■ HERNANI ODOL EMAILEAK

# Urteko lehenengo zita, gaur odola emateko

Hernaniko anbulategian egingo da 18:00etatik 20:30etara eta abenduko datu kaxkarrak hobetu nahi dira urtearen hasiera honetan. Odol emaile izatera animatu nahi dira hernaniarrak.

ODOL emaileek gaur urteko lehenengo zita dute. Eta noski odol emaile egin nahi dutenek ere bai. Aurreko asteartea jai-eguna izan zenez, gaur izango da odola emateko urteko aurrenekoa. Hilero bezala, arratsaldeko 18:00etatik 20:30etara izango da, anbulategian.

Urtea gainera ez zen nahi bezala amaitu, Odol Emaileen elkartean nahi baino datu kaxkarragoak izan ziren eta abenduan 46 lagunek eman zuten odola, eta horietatik bi izan ziren berriak. Hori bai, herritar bat egin zen organo donante. Urteko azken hila-beteak ez dira onenak izaten.

Estrakzio kopuruek gorabeherak izaten dituzte eta egonkortu egin nahi da odol emate kopuru haundi batekin eta berriak animatu. ||



2018ko urte hasieran jende gehiago bildu zen odol ematen urte amaieran baino.

## ■ ASTIGARRAGA MATERIAL BILKETA

# Sahararako material bilketa gaurtik ostegunera

'Sahararen aldeko euskal karabana' ekimenaren baitan kokatzen da eta Xaguxar aisialdi taldeak antolatzen du. Gaur Herri Eskolako patioan egingo da 16:30etan eta Isa Coviran dendaran.

URTERO bezala, Saharako errefuxiatu kanpalekuek bidaltzeko material bilketa martxan jarri du aurten Xaguxar aisialdi taldeak. Gaur emango zaio hasiera eta zita desberdinak jarri dira material bilketa egiteko. Herri Eskolak ere bat egiten du ekimenarekin.

**Herri Eskolako patioan, Isa Coviranen eta Joseba Barandiaran Plazan**  
Honela gaur, 16:30etan, Herri

Eskolako patioan egingo da bilketa. Isa Coviran merkatal dendaran ere eman daiteke materiala; gaur, bihar eta etzi ostegunean. Herri Eskolan ere ostegunean egongo da bilketa, 16:30etan patioan eta Joseba Barandiaran plazan ere bai, ostegunean, 18:30etan.

**Oraingoan osasun eta eskola materiala eskatzen da Dajla kanpamenturako**  
Saharako errefuxiatu kanpa-

menduetan, baldintza penagarrietan bizi dira eta honek osasun arazo larriak sortzen dizkie, batez ere, ume eta haurdun eta bularra ematen ari diren emakumeei. Horregatik osasun materiala bilduko da eta hezkuntzaren alde egiteko ere eskola materiala.

Dajla kanpamentura joango da bildutako material guztia eta eskatzen dena ondorengo materiala da: arkatzak, margoak, reglak, papera eta

koadernoak. Osasun materialari dagokionez: ibuprofenoa, paracetamola, Dalsy, gasak, sueroa eta tiritak.

Bere garaian, herriko komertzioetan edota kultur etxean egin izan dute bilketa, eta azkenaldian, Herri Eskolan hasi dira egiten. Hala ere, azpimarratu nahi da, herritar guztiei irekia dela bilketa, eta denak animatu dituzte, parte hartu eta ikastolara hurbiltzera, janaria ematera. ||

**Funeraria VASCONGADA**  
Zure eskura  
24h-ko zerbitzua  
**943 376 980**  
Orkolaga, 2-4  
943 55 79 01  
HERNANI  
[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com)

**HATOR**  
AHOLKULARITZA  
Fiskala, laborala  
eta Kontabilitatea.  
Gure zerbitzuak euskaraz  
jasotzeko aukera duzu...  
**MAPFRE ASEGURUAK**  
Andre kalea 60, Hernani  
Tel: 943 55 43 12  
[hator@euskainet.net](mailto:hator@euskainet.net)

**mikel armendariz**  
proiektu eta instalazio  
elektrikoak  
Tel. 649 846 422  
HERNANI

**Allianz** ASEGURUAK  
bizitza -  
liripitriak -  
ibilgailuak -  
etxeak -  
komertzioak -  
enpresak -  
ardura zibila -  
finantz aseguruak -  
inbertsioak -  
**agustin ezponda irizar**  
agentzia  
Nagusia, 13  
Telf.: 943 55 73 26  
Faxa: 943 33 57 71

**TAXIAK:** 943 550093 **UDALZAINGOA:** 943 248900 **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 943 203020 **IJOKALARI / ALKOHOLIKO ANONIMOAK:** 943 331103  
**Egunez: A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** / **Gauetz: Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani)

**EGURALDIA**  
**GAUR** Goizean ostearke zabalduko dira, baina arratsaldeak aurrera egiten duen heinean lainotzera egingo du. Azken orduetan euri bikia egin dezake eta temperatura apur bat igoko da. **Min.3° / Max.9°**  
**BIHAR** Giro motelarekin dator eguna, zerua lainotuta egongo da eta tarteka euria egingo du. Eguna aurrera egiten duen heinean aire-masa hotzagoa sartuko da. **Min.5° / Max.9°**

## HERNANI-ASTIGARRAGA DIAPORAMA LEHIAKETA

# Bidaien diaporama lehiaketa jarri da martxan Buruntzaldeako gazteentzat

2garren aldiz eskualdeko gazteen mugikortasuna sustatzeko helburuz, gazteek bizi izan dituzten esperientzien berri emateko modua izango dute.

URNIETAKO Gazte Informazio puntuak 2. Bidaien diaporama lehiaketa jarri du abian herriko gazteen mugikortasuna sustatzeko helburuz. Modu honetan, gazteek azken urte hauetan bizi izan dituzten esperientzia interesgarrien berri emateko modua izango dute.

### 2011 urtetik aurrera egindako bidaia baten kontaketa

Buruntzaldeako Udaletan (Urnieta, Hernani, Astigarraga, Usurbil, Andoain eta Lasarte) bizi, ikasi edo lan egiten duten eta 2003a baino lehenago jaiotako gazte bidaiazaleek aukera paregabea dute haien bidaiaren bat ezagutzera emateko: nolako esperientzia izan zen, nola antolatu zuen bida-

ia, zein ibilbide burutu zuen, zer ikusi eta ikasi zuen...

Diaporamak 2011 ondorengo bidaiei buruzkoak izan beharko dute eta ikus-entzuzko materiala eta 30-45 minutuko ahozko aurkezpena izan beharko dute. Aurkezpenak banaka edo taldean egiteko aukera eskainiko da, baina hori bai, taldeko gehieneko parte hartzaile kopurua lau pertsonakoa izango da.

### Izena emateko epea urtarrilaren 25era arte

Izena emateko eta lanak aurkezteko epea urtarrilaren 25ean amaituko da eta ondorengo lekuetan egin daiteke: Leikaio kultur etxea, Gazte Informazio Puntua eta Urnieta

Udalaren webgunea.

**Sari potoloak banatuko dira** Aurkezten diren guztien artean hiru pertsona hautatuko dira bidaien originaltasuna eta aurkeztutako materialaren kalitatea kontuan izanik, eta horiek beraien diaporama aurkezteko aukera izango dute. Puntu horretara iristen direnek 100 euroko sari bat eskuratuko dute, baina ondoren, hiru hautatuen artean irabazlearen saria (300 euro) banatuko da ondorengo irizpideak baloratu-ta: Aurkezpenaren erakargarritasuna, arintasuna eta argitasuna. Erakusketaren kalitatea eta originaltasuna. Aurkezpena bere osotasunean eta erabilitako materiala. ||

## HERNANI PELOTA



Txapelketan parte hartu duten pelotariak eta CD Hernani pelota sailleko arduradunak.

# Eguberrietako pelota txapelketa finalekin borobildu zen frontoian

Pelota eskolako 32 pelotarik hartu dute parte eta baita Buruntzaldeako 16 pelotari seniorrek. Salaberria-Arizmendik irabazi dute senior mailan.

EGUBERRIETAKO Hernaniko Pelota Txapelketa pasa den larunbatean amaitu zen bost partidu eta hiru finalekin. Senior mailan, Salaberria eta Arizmendik 22-18 irabazi zieten Altuna eta Insaustiri. Alebinen finalean, Danel Manterolak irabazi du txapelketa, finalean

16-8 Ekhi Osas gairitu eta gero. Benjaminetan, Aratz Labaka izan da txapelduna, finalean Oier Arsuagari 16-8 irabazi eta gero. Azken jardunaldian alebin eta benjaminetan 3garren eta 4garren postuak ere jokatu ziren. Xuban Urija sailkatu da hirugarren

alebinetan eta Manex Alberdi laugarren. Benjaminetan Lander Arribas izan da hirugarrena eta Lier Zugasti laugarrena. Txapelketan zehar pelota eskolako 32 benjamin eta alebin pelotari aritu dira eta Buruntzaldeako 16 pelotari senior. ||

## HERNANI DOBERA EUSKARA ELKARTEA

# Mintzapraktikan aritzeko laguntzaileak behar dira

20 bat lagun berrik eman dute izena euskara praktikatzeko, baina taldeak ezin dira osatu.

GURE Artean Euskaraz mintzapraktika egitasmoan arazoak daude taldeak osatzeko, laguntzaile/boluntario faltagatik. Aurten, Euskaltzaleen Topaguneak egindako *Egin jauzi!* kanpainarekin bat egin du, eta ondorioz, 20 bat lagun berrik eman dute izena egitasmoan, mintzapraktika egin eta euskara praktikatzeko asmoz. Baina, laguntzaile/boluntario falta dela eta, oraindik ezin izan dira taldeak osatu.

### Dakienak ez dakienari laguntzea da muina

Hori horrela, Dobera Euskara Elkartean, euskaldun eskuza-balen bila dabilta. Egitasmoaren muina elkarri laguntzea da; dakienak ez dakienari laguntzea, alegia. Egitasmoan parte hartzen dutenak talde txikietan biltzen

dira, hiruzpalau kidez osatu-takoak.

### Astean behin ordubetez

Astean behin, ordubetez aritzen dira euskaraz hitz egiten. Tartean, noski, hizkuntza menperatzen duen pertsona bat izaten da laguntzaile moduan. Gainerako taldekie-deek euskara praktikatzeko bilatzen dute; segurtasuna irabazteko, lotsa galtzeko edo hizkuntza maila hobetzeko, besteak beste. Nola egin, noiz eta non bildu... hori taldeak erabakitzen du.

Laguntzaile/boluntario bezala aritzeko, ez da ezinbestekoa euskararen gramatika edo Euskaltzaindiaren arauak jakitea.

Euskaraz egiteko erraztasuna eta erraztasunik ez dutenei laguntzeko gogoia besterik ez dira behar. ||

## HERNANI-GOIZUETA UMORE ONA PILOTA

### Deskarga-Alegria eta Apezetxea, finalean

Goizuetako Umore Ona pelota txapelketako finalak larunbatean jokatu dira, 10:00etan, eta bertan Hernaniko bikote bat eta goizuetar pilotari bat izanen dira. Haurretan (infantilak) Deskarga eta Alegria hernaniarrek Oliden eta Bertiz aňogatarren aurka jokatu dute. Xanet Apezetxea goizuetarrak, Epleko Etxeberriarekin batera, kimuen (alebinak) finala du Gesala eta Artetexeren kontra. ||

## ASTIGARRAGA IPUIN KONTAKETA

### Ipuin kontaketa, ostegunean, 18:00etan

Lur Korta ipuin kontalariaren eskutik *Gose Handiko Beldarra* (Kalandraka) kontatuko da. 3 urtetik aurrerako haurrentzat dago zuzendua, ostegunean Astigarragako liburutegian, 18:00etan. ||

## HERNANI-ASTIGARRAGA MANIFESTAZIOA

### Bilboko manifestaziora, autobusak

Urtarrilaren 12an Bilbon euskal presoek eskubideen alde egingo den manifestaziora joateko autobusak jarriko dira Hernanin eta Astigarragan. Hernanin, 14:45etan aterako dira Atsegindegitik, eta txartelak salgai daude 10 euroan Garin, Txili eta Kitton. Astigarragan, Ikatzan eta Zipotzan daude izenemate zerrendak. ||

## HERNANI WATERPOLOA

### Garaipena, Easoren aurka Kopan

Hernanik garaipen ona lortu zuen larunbatean etxean, Euskal Herriko Kopan, Donostiako Easori 16-11 irabazita. ||

## IRAGARKI MERKEAK

**lñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**